


DEKLINABIDEAK



Plazaolako trenbidea

Aisialdirako natur-bidea dugu Plazaolakoa. Andoainetik Lekunberrira doa eta bizikletak zein oinezkoak ibili daitezke trenak utzitako bidetik.

Trenbide hura hasieran Andoainetik Plazaolaraino zihoan eta burdina garraiatzeko zen. 1914. urtetik iruñetik Donostiaraino bidaiariak garraiatzeko erabili zen. Urte hartako urtarrilean abiatu zen Donostiarantz lehen trenak, Leitzan, Lasarten eta beste hainbat herrian geldialdiak eginez. 1953ra arte tirika-tarraka ibili zen joan-etorrian.

1.DEKLINABIDE KASUAK. Zein galderari erantzuten diote testuan nabarmendutako hitz hauek? Lotu.

Andoainetik

NON/NOIZ?

Lekunberrira

Plazaolaraino

NONDIK/NOIZTIK?

1914. urtetik

NORA/NOIZ ARTE?

urtarrilean

Donostiarantz

NORAINO?

Leitzan

NORANTZ?

1953ra arte

EUSKERA 6M

2. **NON, NORA eta NONDIK**. Erantzun galderei parentesi arteko erabiliz.

-Nora heldu ziren motorzaleak? (Eibar)

-Nondik zatoz itxura horrekin? (Pilotaleku)

-Non ote dago gure txakurra? (edozein toki)

-Non ikasi zenuten ingelesez? (Irlanda)

-Nondik ihes egin dute lapurrek? (leihoak)

3. **NORANTZ eta NORAINO**. Aukeratu hitz zuzena esaldi bakoitzean.

-Lagundu, mesedez, ni ez naiz _____ heltzen.

-Guk _____ eramango dugu; handik eramanezuek.

-Itsasontziak _____ irten dira kaitik.

- _____ doaz, _____ al dira tontorreraino?

4. **NOIZ, NOIZTIK eta NOIZ ARTE**. Osatu esaldiak, parentesi artekoa erabiliz.

- _____ ospatuko dugu nire urtebetetzea. (asteburu)

-Bostetatik _____ dago zabalik ludoteka. (zazpiak)

- _____ entzun ohi dira hontzaren uluak. (gau)

- _____ ari naiz gitarra jotzen ikasten. (iaz)